

Liburutegia

PILAR IPARRAGIRRE

Espainiaren
arimaz

Joxe Azurmendi

ELKAR

284 orrialde

22,70 euro

Joxe Azurmendi
Espainiaz

Espainia edota hispanitatearen alde pentsalari eta apostolu esanguratsuenek idatzitakoak aztertu ditu Joxe Azurmendik *Espainiaren arimaz* liburuan. XIX. mende osoan eta XX.eko gehientsuenean Zezen Larruko intelektual askok izan zuten Espainia hizpide: Unamunok, Ortega y Gassetek, Menéndez Pidalék, Menéndez Pelayok, Salvador Madariagak, Sánchez Albornozek, Costak, Ganivetek... baita Pío Baroja berak ere. Hau da, faxistetatik hasita, ustezko aurrerakoienetaraino Espainiaren arima eztabaidagai izan da. Haren beheraldia, endekapena, gaixotasuna.... Alegia, nor

izateko beste batzuk zapalduz izan behar dituen herrialde baten ideologia, beti inperiala, baita sarri arrazista ere. **I**

Zumaia, itsasotik
Goiko kalera

Imanol Azkuek zumaia askoren laguntzaz osaturiko liburua da *Zumaia, izena eta izana*. Herria bere osotasunean hartu du egileak lan hau egiteko, eta jakina, bere nortasunean hainbeste eragin izan duen itsasoa. Zumaia historian murgildu da, mendez mende zumaiaarren jarduna aztertzeke, egungo egoeran bezainbat. Eta bata zein bestea osatu dituzten pertsonetan jarri du arreta. Zuri-beltzeko zein koloretako laurhun argazki esanguratsuz apainduta dago Zumaia Udalak plazaratutako liburua. Milatik gora leku-izen eta horien gaineko azalpenak, zumaiaarren lehengo ohiturak edo afizioak, historian zehar gertaturiko zenbait pasarteri buruzko testigantzak eta herrian bertan jaiotako hainbat pertsonen biografiak osatzen dute *Zumaia, izena eta izana* lanaren mamia. **I**

Zumaia, izena
eta izanaImanol Azkue
Ibarbia

ZUMAIAKO UDALA

228 orrialde

12 euro



Senez

Batzuen artean

EUSKAL ITZULTZAILE, ZUZENTZAILE
ETA INTERPRETEEN ELKARTEA

120 orrialde

Euskarazko bikoizketaren
inguruko jardunaldien mamia

ETB sortu zenetik hogeita bost urte bete zirenean egindako jardunaldi batzuen mamia jaso du *Senez* itzulpen aldizkariak azken alean: euskarazko bikoizketaren inguruko jardunaldien, hain zuzen ere. Haietan parte hartu zutenek jorratutako gaien artean honakoak daude: euskarazko bikoizketarako irizpide nagusiak; azpidatziak eta bikoizketa; itzulpen-egokitzapena; zuzentzailearen garrantzia euskara biziberritzeko; zinemarako euskarazko bikoizketa; EITBk bezero gisa duen ikuspegia... Beste hiru lan ere agertzen dira *Senez*-en: Kataluniako telebista bikoizketari buruzkoa bata; euskarazko bikoizketaren historia azaltzen duena bigarrena; eta Galizia-ko itzulpengintza eta bikoizketari buruzkoa hirugarrena. **I**

José Ignacio
Tellechea gogoan

Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko *Boletín* aldizkariaren azkeneko alean gogoan dute 2008ko martxoaren 8an zendu zen José Ignacio Tellechea historialaria. Nola ez, hainbeste urtean aldizkari kolaboratzaile fin izan baitzuten. José Artecheren iloba hau zenbait unibertsitateko irakasle izan zen, baita ehundik gora historia ikerketaren egile ere; kontaezinak dira hark emandako hitzaldiak. *Boletín*-en bere omenez idatzitako lanen sinatzaileen artean M^a Rosa Ayerbe aldizkari-ko idazkaria, José María Setién Donostiako gotzain emeritua, José María Urkia Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko lehendakaria, Juan Carlos Sánchez Ciudad Rodrigoko apaiztegiko zuzendaria, Luis E. Rodríguez-San Pedro Bezarés, Juan Garmendia Larrañaga, Juan Antonio Garmendia Elósegui eta José María Echarri Campo daude. **I**




Boletín

Batzuen artean

EUSKALERRRIAREN
ADISKIDEEN ELKARTEA

432 orrialde

12 euro



Festa aldame- neko gelan

Mariasun Landa

EREIN

142 orrialde

15,50 euro

1968ko maiatzaren ondorengo Paris hura

Etorkizunerako dituen ametsak egi bilakatu nahian dabilen hemeretzi urteko neska gaztea da Mariasun Landaren *Festa aldame-neko gelan*. Paris, 1968-1969 nobela autobiografikoaren protagonista. Simon de Beauvoiren lanak liluratu dauka gaztea, eta idazle izateko irrikarekin abiatu da Euskal Herritik Frantziako hiriburura, duela gutxi 68ko maiatza izenarekin gogoratuko den matxinada bizi izan duen hiri-
ra, lan egin eta ikasteko asmotan. Baina "Iraultzak" Parisko zenbait esparrutan bere ondorioak utzi baditu ere, eraldaketa eskasa izango du aske eta independente izateko asmoz hain-

bat paristar familientzat etxeko lanak eginez bizia irabazi nahi duen neskaentzat. ■

Adiskidetasunak izan behar dituen oinarrien argibideak

Ibaizabal argitaletxeak hamar urte ingurukoentzat plazaratutako *Erregalitz taldea* bildumako ale bat da *Ederra egin du Leok!*. Gurasoak banandu zaizkion bederatzi urteko neska du protagonista. Banaketaren ondorioz, bizilekuz, hiriz eta ikastetxez aldatu egin behar izan du. Amarekin bizi da orain, aitarekin egunero telefonoz hitz egiteko aukera duen arren. Baina beldurrik handiena ikastetxe berrian aurki dezakeen giroak ematen dio, eza-gutu duen ikaski-de bakarrak esko-la hori kaka hutsa dela esan diolako. Zergatik ote? ■

Ederra egin du Leok!

Patricia Schröder

IBAIZABAL

108 orrialde / 9 euro



TXOMIN PEILLEN KARRIKABURU

«Zoritxarrez edo zorio- nez ezagutu ditudanak agertzen dira liburuan»

Nolatan sortu zitzaizkizun *Jende ederrak lanean* liburuko ipuinen pertsonaiak?

Nor den nor? Inor ez eta asmoz edo ekintzez denak hor. Duela hamabost urte jende ospetsu eder eta ohargarrien curriculumetan aurkitzen ez diren sekretuak argitzeko asmoa gogoan sartu zitzaidan. Han hor agertu edo agortu diren aldizkarietan *De viris et mulieris inillustribus* bat egiteko lehen urratsa.

Asmatuak ala errealtatetik jasoak dira?

Zoritxarrez edo zorionez ezagutu ditudan jende batzuk agertzen dira liburuan; beste asko, berriz, nire asmakizunak, ametsen eta errealtatearen artekoak dira. Sinesgaitz ez dena ere gerta bailiteke, sinesgogorrenak gertatuak dira. Nolanahi ere, irakurleak ez du aurkituko psikologiazko edo moralezko itxurarik ipuinotan, non ez duen ikusten nola bizi diren guri irakasbide ematen dabiltzanak: ez dutela predikatzen dutena gauzatzen, ez eta gauzatu nahi. Mozorroa kendu eta tximinoa biluzik.

Maltzurkeria erabiltzen iaioak izan arren porrotak ere jasaten dituzte zureek. Eta alde askotako jendea da.

Bai. Bai ipuinetan ustez eta hobekienik ezagutzen dudana norbait agertzen da, nire burua. Baina bestelakoan, sarri, notinak ez dira euskaldunak, ez eta, beti, euskal herritarrak, nire biziaren erdia baino gehiago gure herritik kanpo eramane behar izan dudalako. Erbestean ikusi dut nola zakurrak ortutsik dabilzan han ere, eta baita gehienetan handikien bizitza txikieriaz bete nola den ere, euren ospea hutsean, hondarrean, harean eraikia dutela. Dena den, ipuinok, kilimon batzuen kontakizunarekin, irria sortzeko ustez idatziak ditut.



egileari galdezka

Txomin Peillenen azken ipuin sorta heterodoxoa

Bere emazte maite irudigilea den Marie Thérèse Olivieri eskaini dizkio Txomin Peillenek

Utriusque Vasconiae argitaletxearen bidez kaleratu duen *Jende ederrak lanean* (*Who's Who?*) liburuan agertzen diren hogeitaz hamar narrazio maltzur bezain ironikoak. Idazle zaildu honek ohikoa duenez, konformismoa du hauetan ere etsaia, eta istorioetan agertzen dituen pertsonaiak, gizon ala emakumeak izan; helduak, edadetuak zein gaztetxoak badute, dudarik gabe, gutako edonoren tankerara, bere alde ona, nor beraren buruari edozertarako aitzakiak aurkitzeko orduan batik bat, baina baita bere alde makurra ere, eta ez txikia. Gizate-riaren esparru oso zabala-ri egiten dio leku Txomin Peillenek narraziotan: ministro izan aurretik bere alprojakeriak eginak dituen gizona bezala, hamalau urterekin egin



Jende ederrak lanean

Txomin Peillen

UTRIUSQUE VASCONIAE

110 orrialde

14 euro

zuen lapurreta txikiaren erruz epaile lizun baten apetara makurtu behar duen neska umezurtza; telematikazko sendagilea eta senar hartzen duen oro beste mundura bidaltzeko afizioa duen forentsea; epaiketetan lo hartzen duen abokatua eta polizia izatea erruz gusztatzen zaiona; Europara etorritako teologo musulmana eta Euskal Herriko erretorea; baita ateo militanteak ere. ■